

ta baita ere Juan Gorostiaga jauna gure lankidetzat aukeratu sarien bidez. Urkijo jaunak oarpi-de batzuk ipiñi dizkio.

4.^a Azkue jaunak bere lan eder bat irakurri digu: APÉNDICE DE LA MORFOLOGÍA — CONJUGACIÓN GIPUZKOANA.

5.^a Ormaetxea jaunak Ataungo Bikario edo Efe-tore izandako baten itzaldi batzuek (10 omili) aztertu ditu: 1852'gañen urtean, ta dirudinez, Juan Antonio Garmendiarenak dira.

6.^a Altube jaunak Izendegia dala-ta, bere lan egoki bat irakurri digu: *El Santoral Vasco*. Erdia irakurri duenean luze izango dala-ta biarko utzi degu beste erdia.

7.^a Iztegi beñirako itz beñi edo *neologismos* sortzen jardun degu ta beste gai batzuek bigaramonera-ko utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Epaiñaren 31'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Olabide, Intzagarai, Altube, Lakonbe, Elissalde, urgazletatik Ormaetxea eta Lekuona jaunak.

Otoitz egin da.

1.^a Altube jaunak, aurfeko batzarañean utzitako bere lan ederañen erdia irakurri digu: *El Santoral Vasco*. Lan onen ondorekotzat garbi azaldu ditu Altube jaunak. Denak ederañtsi al lezazkike Euskaltzaindiak? Bayetz dio Altubek, geienak beñepein, izen-jartze arazo ontan, gurasoena bai-da eskubide guzia.

2.^a Bikario jeneralaren idazki bat irakurri da. Oñetzaz Altube jaunak dasa: Gotzai jaunari eskatu bear zaiola, aur euskaldunai euskeraz erakusteko eskubide-a, batere galdefu gabe zein izkuntzetan nai duten.

3.^a Lekarotz-en, urtero bezela, euskal-azterketak dirala-ta, liburu batzuek, saritzat, igoiriko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Iruñian Aldundi - Jauregian, 1933'ko Oñilaren 18'an.

Batzar ontan, euskaltzain auek bildu dira: Azkue, maipuru; Kanpion, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe ta Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea ta Angel Irigarai.

Otoitz egin da.

1.^a Ormaetxea jaunak *Acento Vasco* dala-ta bere lan bat irakufi digu. Lan au, Altubek egin dakoari erantzupen-edo dagokiona da. Euskaltzaindiak gogo onez entzun du. Gure EUSKERA-n argitaratuko da.

2.^a Aita Intzak esan digu: Gazteiz edo Araba aldeko euskeraren zabalkunderako zerbait egin bear litzakela. Ortara doa oraintxe sortu dan *Alkarte* bat eta oneri sorozpideren bat eman bear litzaiokela. Ortan dago Euskaltzaindia ere.

3.^a Iztegiaren itz beñitan jardun degu ta otoitz egiñik amaitu da batzaraldia.

Iruñian Aldundi - Jauregian, 1933'ko Oñilaren 19'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Kanpion, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe, Elissalde, ta urgazletatik, Ormaetxea ta Angel Irigarai.

Otoitz egin da.